

ADINEKOEN GUNEA SORTZEN

Oiartzungo Udala herriko Landetxeko erabilera anitzeko gune berria eraikitzen ari da. Bertan, euskara, kultura eta adinekoekin lan egiten duzuen hainbat eragile biziko zarete.

Une honetan, Oiartzungo Udalak partaidetza-proiektu bati ekin dio, eta honako helburu hauek ditu 60 urtetik gorako komunitatearentzako espazioari dagokionez:

- Komunitateak berak erabaki dezala zer izan behar duen guneak
- 60 urtetik gorako pertsona guztiek gunea berea senti dezatela, pertsona guztiek berdin.

Hausnarketa honetan, herrian adineko pertsonekin eta pertsonentzat lan egiten duten elkarten, eragileen eta zerbitzuen eskaintza osoa eta herritarren iritziak, beharrak eta esperotakoak jaso nahi dira.

Horretarako, partaidetza prozesua 4 fasetan banatuko da:

1. **Fasea: Proiektua aktibatzea:** proiektuaren oinarriak eta parte-hartze mailak zehazteko.
2. **Fasea: Taldeak sortzea:** proiektuan parte hartuko duten eragile guztiei proiektura gonbidatzea eta herritarren parte-hartzera gonbidatzeko komunikazioa egitea.
3. **Fasea: Ekintza programa:** Espazioa nolakoa izan nahi denaren oinarritzko informazioa eta edukiak lortzea. Fase honetan, Oiartzungo auzo ezberdinetan saio- partehartzaileak egingo dira, herritarrei irekiak.
4. **Fasea: Emaitzen aurkezpena:** Behin betiko emaitza gizarteari aurkeztea eta proiektuari itxiera ematea.

Orain:

Orain, proiektuaren 3. Fasean sartuko gara. Fase honetan, herritarrei irekiak izango diren saio partehartzaileak egingo dira Oiartzungo auzoetan. Saio bera izango da auzo bakoitzeko, herritar guztiek nahi duten unean eta tokian parte hartu dezaten.

Saioetan ikusiko diren atalak, honako hauek izango dira:

- Proiektuaren aurkezpena.
- Adinekoen gunearen azterketa, beharren behaketa eta ideien jarioa.
- Hurrengo pausoak.

Parte hartzera animatu zaitez! Saio partehartzaileak honako leku eta datetan egingo dira:

- Altzibar (Olatxo auzo lokalean) Martxoak 29 10:00-11:30 euskaraz
- Altzibar (Olatxo auzo lokalean) Martxoak 29 17:00-18:30 elebitan
- Karrika+Ergoien+Gurutze (Auzokalten) Martxoak 31 17:00-18:30 euskaraz
- Ugaldetxo (Isasti auzo lokalean “Atamitx”) Apirilak 1 10:00-11:30 euskaraz
- Arragua (Aldeguna) Apirilak 1 17:00-18:30 elebitan
- Iturriotz (Argiñeneko auzo lokala) Apirilak 5 17:00-18:30 euskaraz
- Elizalde (Udaletxeko pleno aretoan) Apirilak 7 10:00-11:30 euskaraz
- Elizalde (Udaletxeko pleno aretoan) Apirilak 7 17:00-18:30 elebitan

Parte hartzera eta aukera ezin hobe hau aprobetxatzera animatzen zaitugu, guztion artean adinekoentzako gune berri hau nolakoa izan behar den erabakitzeko!

[KULTUR ETXE BERRIA]

Zuen espazioak nolakoa izan behar duen definituz
ADINEKOEN GUNEA SORTZEN
Definiendo vuestro espacio